

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jendaurrean jartzea Araiaiko Santsaerreaka kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, desjabetzeko, aldi baterako okupatzeko eta zortasunak eratzeko

Udalbatzak 2021eko uztailaren 8an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi da "Araiaiko Santsaerreaka kaleko urbanizazioa eraberritzeko" obrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, Molli SL ingeniariak idatzitako eta Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 7an onetsitako proiektu teknikoaren arabera. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 programan sartuta daude obra horiek, eta horrek berekin dakar bertan jasotako obrak onura publikokoak direla adieraztea eta obra horiek egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak desjabetzeko baimena ematea; desjabetze horrek lursailak okupatzea borondatez baimendu ez duten jabeen lurzatiei ere eragiten die.

Onorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoaren babesean, jendaurrean jartzen da zerrenda hori 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan, edozein pertsonak aurkeztu ahal izango ditu, idatziz, argitaratutako zerrendan egon litezkeen akatsak zuzentzeko datuak; edo, funtsari edo formari lotutako arrazoiengatik, okupazio-premiaren aurka egin ahal izango du. Kasu horretan, adieraziko du zergatik jotzen duen egokiagozat, lortu nahi den helbururako, zerrendan jasota ez dauden beste ondasun batzuk okupatzea edo beste egitate batzuk eskuratzea.

Interesa duten entitate eta partikularrek eskura dituzte lurzati planoak eta eragindakoen zerrenda Asparrenako Udaleko ediktu taulan, bai eta www.asparrena.eus udal-webgunean ere, aztertu ahal izateko eta, hala badagokio, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Asparrenako Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko enparantza, 1. 01250 Araia) edo herritarraren atariaren bidez, lehen aipatutako web-orrian.

Hau da eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda:

1. 2 poligonoko 1871 lurzatia.

Jabearen datuak: J. M. E. S. D. A. NANA: 1-----51X

Finkaren deskribapena: lehorreko laborantza lurra.

Afekzio mota: Behin betiko okupazioa: 2 m². Aldi baterako okupazioa: 180,30 m². Ubide zortasuna: 90 m².

Balorazioa: 282,16 euro.

2. 2 poligonoko 1184 lurzatia.

Jabearen datuak: R. M. E. S. D. A. NANA: 7-----07Q

Finkaren deskribapena: Landa finka. Lehorreko laborantza lurra.

Afekzio mota: Behin betiko okupazioa: 4 m². Aldi baterako okupazioa: 348,00 m². Ubide zortasuna: 174 m².

Balorazioa: 475,74 euro.

Araia, 2021eko uztailaren 15a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ